

---

**A05/2022 Erabakia, NADOEren Zuzendaritza Komiteak 2022ko ekainaren 16an egindako bileran hartua, prestakuntza-jarduerak homogeneizatzeko dokumentua aldatzen duena**

---

Oharra: Dokumentu honetan “orduak” hitza erabiltzen denean, “Prestakuntzako ordu baliokideak” (**POB**) direla ulertu behar da. Jardueren dokumentuan erregistratzeko zenbaketa-unitatea da POB, eta ez du zertan izan jarduera batek irauten duen denbora errearen parekoa. Bi motatakoak izan daitezke:

**(PT):** Prestakuntza tematikoa

**(ZP):** Zeharkako prestakuntza

**1) Tesiko lanen argitalpena.**

*PTkoak dira:*

- 1.a)** JCR eragina edo baliokidea duten aldizkarietan argitaratutako edo onartutako artikulua: PTko 20 ordu.
- 1.b)** CNEAIko dagokion eremuko ebaluazio irizpideetan jasotako formatu eta hedabideetan argitaratutako lana, JCR eragina duten aldizkarietan argitaratzen ez diren arloetarako: PTko 20 ordu.
- 1.c)** Prestigio aitortua duten argitaletxeetan argitaratutako monografiaren kasuan, Batzordeak ordu kopuru handiagoa baloratzen ahalko du.
- 1.d)** JCRn ez dauden aldizkari indexatuetan argitaratutako edo onartutako artikulua: PTko 10 ordu gehienez.

*ZPkoak dira:*

- 1.e)** Tesiaren gaiarekin loturarik ez duten argitalpenak ZPari dagozkio, eta 6 ordurekin baloratzen ahal dira gehienez.

**2) Tesiko lanen aurkezpena biltzarretan**

*PTkoak dira:*

- 2.a)** Aurkezpena nazioarteko biltzarretan: PTko 12 ordu.
- 2.b)** Aurkezpena biltzar nazionaletan: PTko 6 ordu.

**3) Tesiko lanen aurkezpena mintegietan**

*PTkoak dira:*

- 3.a)** Aurkezpena kanpoko mintegietan: PTko 8 ordu.
- 3.b)** Aurkezpena barneko mintegietan: PTko 4 ordu.

**4) Parte-hartzea ikastaro eta lantegietan**

*PTkoak nahiz ZPkoak izan daitezke.*

Tesiaren jakintza-arloan sakontzekoak (PT)

Tesian aplikatzen ahal diren ikerketarako teknikei eta metodologiei buruzkoak (PT) Zenbait arlotako ikerketarako teknikei eta metodologiei buruzkoak (ZP) Lan esparru desberdinetan zeharka erabiltzekoak (ZP)

- 4.a)** Jarduerari dagokion prestakuntza motako 2 ordu jardunaldi erdi bakoitzeko (betiere doktoregaiak parte-hartze aktiboa izan badu jardueretan).
- 4.b)** Nazioartekoa bada, 4 ordu jardunaldi erdi bakoitzeko.

**5) Parte-hartzea doktoretza-jardunaldietan**

*PTkoak nahiz ZPkoak izan daitezke.*

Tesian aplikatzen ahal diren ikerketarako teknikei eta metodologiei buruzkoak (PT) Zenbait arlotako ikerketarako teknikei eta metodologiei buruzkoak (ZP) Lan esparru desberdinetan zeharka erabiltzekoak (ZP)

**5.a)** Parte-hartzea nazioarteko edo Iberus jardunaldietan: 12 ordu, PT eta ZP artean banatuko direnak jardunaldietako programaren edukien arabera.

**5.b)** Parte-hartzea beste jardunaldi nazional batzuetan: 8 ordu, PT eta ZP artean banatuko direnak jardunaldietako programaren edukien arabera.

## **6) Hitzaldi, mahai-inguru, mintegi eta biltzarretara joatea**

*PTkoak nahiz ZPkoak izan daitezke.*

Tesiaren jakintza-arloan sakontzekoak (PT)

Tesian aplikatzen ahal diren ikerketarako teknikei eta metodologiei buruzkoak (PT) Zenbait arlotako ikerketarako teknikei eta metodologiei buruzkoak (ZP)

**6.a)** Lan esparru desberdinetan zeharka erabiltzekoak (ZP)

- 1 ordu jarduerari dagokion prestakuntza-motan
- 2 ordu nazioartekoa bada

## **7) Mugikortasun-programetako jarduerak: Egonaldiak beste zentro nazional batzuetan**

*PTkoak dira:*

Tesiaren jakintza-arloan sakontzekoak (PT)

Tesian aplikatzen ahal diren ikerketarako teknikei eta metodologiei buruzkoak (PT)

Egiten diren bestelako jarduera motak (mintegiak, hitzaldiak...) aurrez jarduera bakoitzerako zehaztutako irizpideen arabera zenbatuko dira, eta, horrez gain, kontzeptu hau ere xehatzen ahal da:

**7.a)** Parte-hartzea harrera-zentroko ikerketa-taldeetan (PT)

- 6-11 asteko egonaldiak: 6 ordu
- 12 asteko edo gehiagoko egonaldiak: 12 ordu

## **8) Mugikortasun-programetako jarduerak: Egonaldiak nazioarteko zentroetan**

Tesiaren jakintza-arloan sakontzekoak (PT)

Tesian aplikatzen ahal diren ikerketarako teknikei eta metodologiei buruzkoak (PT) Tesiaren eremutik kanpoko ezagutzak zabaltzea (ZP)

Lan esparru desberdinetan zeharka erabiltzekoak (ZP)

Egiten diren bestelako jarduera motak (mintegiak, hitzaldiak...) aurrez jarduera bakoitzerako zehaztutako irizpideen arabera zenbatuko dira, eta, horrez gain, kontzeptu hauek ere xehatzen ahal dira:

**8.a)** Trebakuntza ikerketa arloaren nazioarteko hizkuntzan eta/edo harrera-herrialdearen hizkuntzan (ZP)

- 6-11 asteko egonaldiak: 8 ordu
  - 12 asteko edo gehiagoko egonaldiak: 16 ordu
- 8.b)** Parte-hartzea harrera-zentroko ikerketa-taldeetan: PT
- 6-11 asteko egonaldiak: 12 ordu
  - 12 asteko edo gehiagoko egonaldiak: 24 ordu
- 8.c)** Ikerketakoak ez diren jarduera generikoak (ZP)
- 6-11 asteko egonaldiak: 5 ordu
  - 12 asteko edo gehiagoko egonaldiak: 15 ordu

### **9) Doktoretza Programaren jarduera espezifikoak, zerrenda honetan jaso gabekoak.**

Gainera, tesiaren zuzendariak zerrenda honetan aurreikusi gabeko beste jarduera batzuk ere baliozkotzen ahal ditu, % 15 gehienez.

Horretarako, proposamena aurkeztu behar dio fitxen plantillan programaren Batzorde Akademikoari (zer prestakuntza-motari atxikitzen zaion eta zenbat ordukoa den adierazita).

### **10) NADOE, IBERUS edo G9 antolatzaile dituzten zeharkako jarduerak**

- 10.a)** ABAI ikastaroa: 16 ordu PT eta ZP artean:
- ABAI-1: ZPko 10 ordu
  - ABAI-2: 6 ordu ZP eta PT artean
- 10.b)** Doktoretza-ikerketari balioa ematea eta merkatura bideratzea (CEIN ekintzailletza): ZPko 6 ordu
- 10.c)** Tesiaren ustiapen komertziala (CEIN): ZPko 6 ordu
- 10.d)** WEBINARRA: Ikerketatik merkatura (CEIN), ZPko 6 ordu
- 10.e)** Tesia 3 minutuan lehiaketa (PTri eta ZPri dagokie)
- 3 ordu parte hartzeagatik
  - 6 ordu finalista izateagatik
  - 10 ordu irabazteagatik
- 10.f)** Parte-hartzea nazioarteko doktoregaien Mentoretza Programan (Campus Iberus)
- Mentore edo enbaxadore izateko prestakuntzara joateagatik: ZPko 5 ordu
  - Mentore edo enbaxadore gisa parte hartzeagatik: ZPko 10 ordu
- 10.g)** G9 Taldearen doktoretza-jardunaldiak: Posterra / Campus Iberusen doktoretza-jardunaldiak (Jaca): Posterra (PTri eta ZPri dagokie)
- 12 ordu parte hartzeagatik
  - 15 ordu accesita lortzeagatik
  - 18 ordu poster hoberenaren saria lortzeagatik
- 10.h)** Academic Writing ikastaroa: ZPko 6 ordu
- 10.i)** Orientabide profesionaleko lantegia (Unib-Giz Fundazioa): ZPko 2 ordu
- 10.j)** Bibliopartikula erako lantegiak (Liburutegia - HBGMI): hamabi lantegiek ZPko 6 ordu lortzeko balio dute (ZPko 0,50 ordu lantegi bakoitzarengatik)

### **11) Irakasle lanean laguntzea**

Behar bezala egiaztatuz gero, irakasle lanean emandako laguntza doktoregaiaren jardueren koadernoan baloratzeko modukoa izanen da zeharkako prestakuntza-jarduera gisara (ZP), 6 ordu lortuta gehienez ere, edozein dela eta irakasgai, ikasmaila, talde edo ordu kopurua.

### **12) Doktoretzako ikasleen ordezkari hautatuak NADOEren Zuzendaritza Komitean eta batzorde delegatuetan parte hartzea.**

NADOEren Zuzendaritza Komitea eta haren batzorde delegatuak osatuko dituen doktoretzako ikasleen ordezkari hautatuari zeharkako prestakuntzako (ZP) 3 ordu aitortuko zaizkio, Zuzendaritza Komiteak 2021eko abenduaren 6ko bileran hartutako A015/2021 Erabakiarekin bat etorritz.

### **13) Jarduera baten gehieneko balorazioa**

Jarduera bakar batengatik prestakuntza tematikoko 20 ordu eta zeharkako prestakuntzako 6 ordu zenbatzen ahalko dira gehienez.

Gehieneko horiek gainditzen ahalko dira kasu hauetan:

- 13.a)** Prestakuntza mota bat baino gehiago konbinatzen dituzten jarduerak (PT, ZP), hala nola doktoretza-jardunaldiak (Iberus, G9, etab.).
- 13.b)** Nazioarteko zentroetan egindako egonaldiak.
- 13.c)** Ikerketa-proiektuarekin lotura estua duten prestakuntza tematikoko ikastaroak, baldin eta haien iraupenak gehieneko ordu baliokideak gainditzen baditu. Halako kasuetan, zuzendariaren txostena ere gehitu beharko da, zehaztuta ikastaroak zer balio duen tesiaren garapenerako.
- 13.d)** Unibertsitatearteko programa baten esparruan egindako jarduerak, baldin eta inplikaturako unibertsitateek prestakuntza-jarduerak aitortzeko taula homogeen bat adostu badute, eta taula hori bat badator dokumentu honen izaerarekin. Dokumentu honetan ezarritako mugak gainditzen badira, Batzorde Akademikoaren txosten justifikatzailea gehitu beharko da.

---

**Erabakiaren amaiera**

---